

Domingotarrak Euskal Herrian

Euskal Herriko domingotarririk sonatuena San Balentin Berriotxo dugu (1827-1861), eta horren ondoan Domingo Erkizia (†1633) eta Mikel Aozaraza (†1637), baina ez da santu horiengan hasi eta amaitzen euskal domingotarren historia.

Izan ere, horien atzetik Ordena oso bat egon da, hainbat euskaldun bildu duena. Eskeko Ordena handietakoa da domingotarrena; XIII. mendean sortu zen hau ere, gainerako Eskekoak bezala. Garai eta inguru zailetarako Ordena erlijiosoa izan zen; Frantziako Hegoaldean sortu, eta berehala Aita Santuek oso eskutik izan zuten, batez ere urte haietako gatazka erlijiosoa konpontzen laguntzeko (1209...).

Predikari berriak

Fraide domingotarren izen ofiziala zera da: "Anaia Predikariak" edo "Predikarien Ordena". Predikuaeren eginbeharrak definitu zuen batik bat fraide hauen biziera, Elkartea horretarakoxe egin zutelako.

Santo Domingo Guzman-goa da Ordena honen lehen gurasoa (1170-1221). San Frantzisko Asiskoa baino hamarren bat urte zaharragoa zen, Espainian jaioa (Caleruega, Burgos), bere goi-ikasketak egindakoa, eta Burgo de Osmako kalonje izatera iritsi zena.

Domingoren bizitzako asmoak guztiz aldatu ziren Okzitaniako Tolosa eta inguruetan mugimendu kataroak zuen indarra eta Eliza ofizialaren ezinak ikusi zituenean (1203-1207). Osmako Gotzain adiskidea hil zitzaizalarik eta lagun berriak inguratu, bere gisara ekin zion pre-

dikuari, Prulla/Fanjeaux-en egoitza jarrita (gaurko Aude departamenduan).

Orduko predikari-taldea Anaiarte bilakatu zen hurrengo urteetan (1207-1216), eta legezko izaera eman nahi izan zion Erromak taldeari: Honorio III.a Aita Santuaren eskutik etorri zen horren aitortza (1216). Elkarreak San Agustinen Erregela hartu zuen gidatzat, berehala berorekin eta lege berrien bidez Ordena orduko premietara egokituz.

Handik aurrera, Anaia Predikariek zabal-kunde harrigarria ezagutu zuten Erdi Aroan: XIII.aren azkenetan 12.600 fraide ziren, eta 1358an 630 fraide-komentu eta 157 moja-monasterio. Domingotarretako hainbatek izan handia irabaziko zuen, gainera. Adibidez, Sto. Tomas Aquinokoa (†1274) edo geroago Frantzisko Bitoriakoa (†1546) teologo handiak izan ziren. Bestalde, ez zaio falta izan Ordenari tradizio mistikorik ere (Eckhart Maisua, †1327; Heinrich Suso, †1366; Katalina Sienakoa, †1380).

Domingotarren Etxeek garrantzirik handiena izan zuten Europako hirietan beren prediku eta ikastetxeekin, eta misioen munduan B. de Las Casas (†1566) bezalako gizonen orotzapena gogoangarria izan da.

Anaia Predikarien bokazioan dago ikastearena, eta XX. mendean loraldi bikaina ezagutu



du jakitun domingotarren lanak: zientzia biblikoetan (Lagrange) bezala teologian (Congar, Chen, etab.). Aberastasun horiekin guztiekin Euskal Herrian ere izan dute lekurik Anaia Predikariek.

Euskal Herri domingotarra

Nork ez du ezagutzen Donostian San Telmo, hain zuzen domingotarren garai bateko komentua? Edo Iruñetik Lizarrara doanak nola ez dio erreparatuko herri-sarreran tontor batean oraindik ere zutik eta handi dagoen domingotarren antzinako komentuari?

Baionan komenturik handiena (c. 1221) domingotarrena zen sasoi batean, eta Iruñe edo Gasteizkoek antzeko pisua izan zuten. Hiriburuetatik kanpo, Erdi Aroan beste hainbat etxe ireki zuten, gainera: Iruñea (1242), Lizarra (1260-64), Zangoza (1270), Gasteiz (1276); horien ondoren etorri ziren besteak: Tuter (p. 1500), Donostia (1512), Bilbo (1529) eta Azpeitia (1590); Bergara (1880), Atarrabia (1915) eta Gorraiz. Hiriburuetatikozan ziren, noski, Etxerik handienak.

Beste Familia Erlijosietan bezalatsu, domingotarren artean ere emakumezkoek beren Monasterioak izan zituzten, garaian garaiko aldarre politikoetatik fraideenak baino babes-tuago egon zirenak: Lekeitio (1368), Kexaa (1374, Arabako Aiaran), Bilbo-Leioa (1499, 1976), Donostia (1544), Gasteiz (1512), Ermu-Elorrio (1594, 1700), Iruñea (... 1597), Tuter (1622). Eliz legeen arabera, klausura hertsiko monasterio bihurtu ziren, noski, hauek.

Horiek denak azkenean moja kontenplariak izan baldin baziren, XX. mendeak emakumez-

koen Kongregazio ekile berriak ere ezagutu ditu Euskal Herriko domingotarren artean: Errenteria, Donostia, Hendaia, Bidarte, Miarritze, Iruñea, Atarrabia, Tuter.

Ordenaren tradizioa ezagututa, eta euskal historialariek ere jaso izan dituzten albisteak gogoran ditugula, badakigu euskal hiriburu eta komentuek eskola-lana ez zutela baztertu, eta aitzitik, hiriburu horietako kultur etxe biziak izan zirela, apaiz eta gizarte klase eta talde jasoagoentzat, bederen. Iparraldean bezala Hegoaldean, Teologi Eskolak ireki zituzten domingotarrek hiriburuetan. Batzuetan, irakas-helburu hori Komentuen fundazio-baldintzetan ageri da: Donostiako San Telmo da horren adibide bat.

Euskal domingotarren artean gogoratzeko moduko pertsonaiak izan ditugu: B. Karrantza nafarra (1503-1576), Toledoko Artzapezpikua eta Kontrarreformako ur nahasiek preso eraman zutena; Domingo Bañez Artazubiagakoa (1528-1604), jatorriz arrasatearra, graziaren eta giza libertatearen arteko eztabaidatu zenean bururik nagusienetako bat, edo Aita Jose M. Larroka donostiarra (1813-1991), Ordena izanberritzean Nagusi Jeneral hautatua (1879-1991), eta euskal idazlea.

Joseba Intxausti

Gehiago jakiteko
VICAIÉ, H.-M. (2003): *Historia de Santo Domingo*. Madrid: Edibesa.

BARRADO BARQUILLA, J. (2004): "La Orden de Predicadores en el País Vasco y Navarra." *Visión de conjunto*, in: EHEH. I, 323-346.

Galderak eta oharak: 610-273580